

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 325/2019 Erabakia, maiatzaren 21ekoa. Onestea Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuen zerrenda aldatzea

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, zeinak onesten baitu Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen testu bateratua, 74. artikuluan dio administrazio publikoek beren antolaketa lanpostu zerrenden edo antzeko antolamendu tresnen bidez egituratuko dutela.

Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak honela dio zioen adierazpenean: "Legeak sistemaren egituraketak oinarri duen muintzat jartzen ditu lanpostu zerrendak, administrazio karrerako funtsezko elementu, lansari sistemaren ardatzik garrantzizkoen eta, batez ere, administrazio egiturak arrazoibidetzeko eragile bilakatuz. Lanpostuak eratzeko erabili behar diren funtsezko irizpideak eta prozedura bideak ezartzen ditu legeak, baina lanpostu zerrenda horiek erakundearen beharren benetako adierazpide izan behar dute beti eta horretan datza horien indarra. Ondorioz, lanpostu zerrenda horiek izaera dinamikoa dute eta horrek administrazio publikoaren helburuak betetzeak eskatzen duen etengabeko egokitze prozesuari jarraitu beharra dakar, beharrak aldatuz baitoaz".

Antolamendu egituren, eskumenen eta lanpostuei esleitutako eginkizunen berezko eboluzioak beharrezko egiten du lanpostu zerrenda era egokian moldatzea eta aldatzea eta, ondorioz, lanpostu bakoitzean jarduteko gaitasunak eta betekizunak ere bai.

Lanpostuak sortzeko ahalmena ematen duen aurrekontu gaitzeari dagokionez, kontuan hartu behar da zer xedatzen duen Lurralde Historikoaren 2018rako Aurrekontua Gauzatzearen abenduaren 22ko 21/2017 Foru Arauak, zeina abenduaren 28ko 71/2018 Dekretuari jarraikiz luzatu baitzen. Izan ere, haren 24.2, 24.3 eta 24.4 artikulua langileen kudeaketari buruzkoak dira, eta haietan adierazitakoaren arabera, "2018ko ekitaldian, lanpostuen zerrenda aldatzeko espedienteak honako kasu hauetan besterik ez dira onartuko: ez da gastu gehikuntzarik sortu behar, edo sortuz gero, kasuan kasuko gehikuntza bestelako lanpostuetarako kredituak murriztuz konpentsatu behar da, eta aurretik Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren aldeko txostena behar da.

Foru sektore publikoko erakundeen aurrekontu plantillaren muga erakunde horietako langile funtzionario eta lan kontratudun langile finkoen plazen guztirako agregatuari dagokio.

Gainera, foru arau horrek xedatzen duenez, "aurreko mugak ez du eraginik izango epai-learen aginduz edo eskumen berriak eskuratzearen ondorioz edo kanporatutako edo azpikontratutako zerbitzuen zuzeneko kudeaketa hartzearen ondorioz sortzen edo aldatzen diren lanpostuetan. Era berean, ez da aplikatuko foru sektore publikoan aurretik harreman finkoa eta mugagabea duen langile funtzionarioa edo lan kontratuduna kontratatzen denean, ez egiturako lanpostuak edo plazak finkatzen direnean, ez eta foru arauak aldarrikatzen direnean, ez Gobernu Kontseiluak abagunekoak ez diren planak, programak eta jarduketak garrantzitsuak onartzen dituen ere, behar den moduko finantzaketarik eduki ezean, funtzio publikoaren arloan eskumena duen organoak aldeko txostena eman ondoren (txostenak adierazi behar du

ez dagoela lanpostu atxikipen ez langile esleipen berririk egiterik eta ezinezkoa dela langileak arrazionalizatzeko eta antolatzeke bestelako neurririk aplikatzea):”

Sail desberdinetako egiturazko beharriaren bilakaera ikusirik, egiaztatu da egokia dela azken urte hauetan mantendu diren zenbait programa finkatzea, zeinen eginkizunak ezin izan baititu bete plantillaren gainerakoak. Horregatik, beharrezkoa da Lanpostu Zerrenda aldatzea, haien eginkizunei jarraitasuna emateko lanpostu horiek sortuz.

Zehazki, 5 lanpostu sortzen dira finkatze bidez: Ekonomia Sustapeneko 2 teknikari (1133.009 eta 1133.010), Herrilantetako erdi-mailako teknikari bat (1240.004), Biodibertsitateko 2 teknikari (1201.002 eta 1201.003).

Beste alde batetik, Diputatu Nagusiaren Sailean, Gizarte eta Erakunde Harremanen Zerbitzuan hain zuzen ere, eskatzen da Komunikabideetako administrari lanpostua kentzea (2008.003) eta Gizarte sare eta harremanen kudeatzaile lanpostua sortzea (1599.001).

Era berean, Ogasun Zuzendaritzan eskatzen da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko eta Ondarearen gaineko Zergen Ataleko administrari lanpostu bat (2014.007) Zergabilketa Zerbitzura aldatzea, atxikita egongo den unitate berrira moldatuz lanpostu horren izena eta kodea, III. eranskinean agertzen den bezalaxe.

Azkenik, Kultura Zuzendaritzan eskatzen da, orobat, agiritegi eta liburutegien arloan egin beharreko lanen bilakaerarengatik, gaur egun hutsik dauden bi lanpostu kentzea: Dokumentazio eta katalogazio arloko arduraduna (1515.001) eta Agiritegi eta liburutegietako erdi-mailako teknikaria (1251.001), biak Agiritegi Zerbitzuari eratzikiak. Horrekin batera, eskatzen da Agiritegi eta liburutegietako goi-mailako teknikari lanpostuko bi dotazio gehiago sortzea, orobat Agiritegi Zerbitzuari eratzikiak (1150.002 eta 003, hurrenez hurren).

Azkenean, Kultura Zuzendaritza honetan bertan aldatu egiten dira Kultura plangintzako teknikari lanpostuaren ezaugarriak (1380.001), administrazio bereziko eskalari (goi-mailako teknikaria) irekitzea eta titulazio espezifikoa deuseztatuz, eta zerbitzu berezien azpieskalari (egiteko bereziak) bakarrik irekita utziz.

I. eta II. eranskinetan zehazten dira kentzeko eta sortzeko proposatzen diren lanpostuen ezaugarriak.

Alegazio izapidea bete da eta negoziazioa burutu da sindikatu ordezkariekin, arau hauek xedatutakoaren arabera: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, onartzen duena enplegatu publikoaren oinarriko estatutuaren legearen testu bateratua, eta Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua, arautzen duena Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua.

Aginduzko txostenak ikusita, horiek direla bide, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuak proposatuta, eta kontuan izanik uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, euskal funtzio publikoarenak, 6.1.e) artikuluan ezarritakoa, diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuak, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehazten dituenak, ezarritakoa, eta Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuak, funtzio publikoaren eskumenak ezartzen dituenak, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuak, funtzio publikoan eskumena duen sailaren egitura organiko eta funtzionala onartu zuenak, ezarritakoa, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespina ematea Arabako Foru Aldundiko karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuen zerrenda aldatzeari, ondoren xedatutakoaren arabera:

- I. eranskinean jasotzen diren lanpostuak kentzea.
- II. eranskinean jasotzen diren lanpostuak sortzea.

- III. eranskinean jasotzen den lanpostuaren atxikipena eta izena aldatzea.
- Kultura plangintzako teknikari lanpostuaren ezaugarriak (1380.001) aldatzea, eskala bat eta berari loturiko titulazioa kenduz.

Bigarrena. Erabaki honek 2019ko uztailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, Gobernu Kontseiluak onesten duen eta ALHAOn argitaratzen den eguna gorabehera.

Hirugarrena. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, argitaratu eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpen hori eman duen organo berean; hori guztia, 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena), betiere 39/2015 Legearen 123. artikuluekin loturik (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenarena).

Gasteiz, 2019ko maiatzaren 21a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Funtzio Publikoko zuzendaria

ADOLFO LANDER VERA

KODEA	IZENA	MOTA	DEJERREG.		BET.	LANTOKI HERRIA					
			BZT.	PREST.		ORDAINSARIAK	LANTOKI HERRIA				
			JARD.	JARD.		D.O		BERARIAZKO OSAGARRIA			
ATXIKIPENA		LANTOKI HERRIA		BERARIAZKO EZAGUPENAK	D.O	MAILA					
ADIM.	TALDEA	ESKALA	IKASKETA				BERARIAZKO EZAGUPENAK	D.O	MAILA		
LANTOKI HERRIA		LANTOKI HERRIA		BERARIAZKO EZAGUPENAK	D.O	MAILA					
ADIM.	TALDEA	ESKALA	IKASKETA				BERARIAZKO EZAGUPENAK	D.O	MAILA		
I. ERANSKINA											
LANPOSTUEN ZERRENDA											
LANPOSTUAK KENTZEA											
02 Saila DIPUTATU NAGUSIA											
02.3 Zuzendaritza KOMUNIKAZIOA											
02.3.01 Zerbitzua GIZARTE ETA ERAKUNDE HARREMANAK											
2008.003	KOMUNIKABIDEETAKO ADMINISTRARIA	EB	B	L	AFA	C 1	12	3	17	18.718,55	VITORIA-GASTEIZ
										01/01/2018	
70 Saila EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA											
70.1 Zuzendaritza EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA											
70.1.01 Zerbitzua AGIRITEGIAK											
1251.001	AGIRITEGI ETA LIBURUTEGIETAKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA	EB	B	L	AFA	A 2	212	349	21	26.451,45	VITORIA-GASTEIZ
										01/12/1994	
1515.001	DOKUMENTAZIO ETA KATALOGAZIO ARLOREN ARDURADUNA	EB	B	L	AFA	A 1	211	213	26	33.910,50	VITORIA-GASTEIZ
										262	
										263	
Lanpostu Totala:										3	

Literalen taula, ALHAOn (27 zk.) argitaratutakoa, 2019ko martxoaren 4an

PAG. 1

KODEA	IZENA	MOTA	DEJERREG.		BET.	LANPOSTUAN JARDUTEKO BALDINTZAK		ORDAINSARIAK		LANTOKI HERRIA		
			BZT.	PREST.		ESKALA	IKASKETA	HIZKUNTZA	BERARIAZKO		D.O	BERARIAZKO
			JARD.	JARD.		ADIM.	TALDEA	AZPIESKALA	TITULUA		ESKAKIZUNA	EZAGUPENAK
II. ERANSKINA												
LANPOSTUEN ZERRENDA												
LANPOSTUAK SORTZEA												
02 Saila DIPUTATU NAGUSIA												
02.3 Zuzendaritza KOMUNIKAZIOA												
02.3.01 Zerbitzua GIZARTE ETA ERAKUNDE HARREMANAK												
1599.001	SARE ETA HARREMAN SOZIALEN KUDEATZAILA	EB	B	3	L	AFA	A 2 C 1	12	221	19	21.370,95	VITORIA-GASTEIZ
10 Saila EKONOMIA GARAPENA ETA LURRALDE OREKA												
10.6 Zuzendaritza EKONOMIA GARAPENA												
10.6.01 Zerbitzua EKONOMIA GARAPENA												
1133.009	EKONOMIA SUSTAPENeko TEKNIKARIA	EB	B	L	AFA	A 1	11	230	211	25	30.506,70	VITORIA-GASTEIZ
30 Saila ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMOEN SUSTAPENA ETA FORU ADMINISTRAZIOA												
30.5 Zuzendaritza ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENA												
30.5.02 Zerbitzua ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENA												
1133.010	EKONOMIA SUSTAPENeko TEKNIKARIA	EB	B	L	AFA	A 1	11	230	211	25	30.506,70	VITORIA-GASTEIZ
50 Saila BIDE AZPIEGITURAK ETA MUGIKORTASUNA												
50.1 Zuzendaritza BIDE AZPIEGITURAK ETA MUGIKORTASUNA												
50.1.02.3 Atala BIDE SEGURITASUNA ETA USTIATZEA												
1240.004	HERRILANETAKO ERDMAILAKO TEKNIKARIA	EB	B	L	AFA	A 2	212	317	200	22	30.576,15	VITORIA-GASTEIZ

Literalen taula, ALHAOn (27 zk.) argitaratutakoa, 2019ko martxoaren 4an

KODEA	IZENA	MOTA	DEJERREG.		BET.	ERA.	LANTOSTUAN JARDUTEKO BALDINTZAK		ORDAINSARIAK		LANTOKI HERRIA		
			BZT.	PREST.			ESKALA	IKASKETA	HIZKUNTZA	BERARIAZKO		D.O	BERARIAZKO
			JARD.	JARD.			ADIM.	TALDEA	ESKAKIZUNA	EZAGUPENAK		MAILA	OSAGARRIA
II. ERANSKINA													
LANPOSTUEN ZERRENDA													
LANPOSTUAK SORTZEA													
60 Saila INGURUMENA ETA HIRIGINTZA													
60.2 Zuzendaritza INGURUMENA ETA HIRIGINTZA													
60.2.09 Zerbitzua NATURA ONDAREA													
1201.002	BIODIBERTSITATEKO TEKNIKARIA	EB B	L	AFA	A 1 A 2	211 212	216 250	3	200	22	28.618,05	VITORIA-GASTEIZ	
60.2.09.1 Atala NATURAGUNEAK ETA BIODIBERTSITATEA													
1201.003	BIODIBERTSITATEKO TEKNIKARIA	EB B	L	AFA	A 1 A 2	211 212	216 250 253 314 315	3 01/01/2019	200	22	28.618,05	VITORIA-GASTEIZ	
70 Saila EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA													
70.1 Zuzendaritza EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA													
70.1.01 Zerbitzua AGIRITEGIAK													
1150.002	AGIRITEGI ETA LIBURUTEGIETAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA	EB B	L	AFA	A 1	211 221	213	3 01/01/2019		23	29.528,10	VITORIA-GASTEIZ	
1150.003	AGIRITEGI ETA LIBURUTEGIETAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA	EB B	L	AFA	A 1	211 221	213	3 01/01/2019		23	29.528,10	VITORIA-GASTEIZ	
Lanpostu Totala:											8		

Literalen taula. ALHAOn (27 zk.) argitaratutakoa, 2019ko martxoaren 4an

PAG.- 2



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren
eta Foru Administrazioaren Saila
Departamento de Fomento del Empleo, Comercio
y Turismo y de Administración Foral

Funtzio Publikoko Zuzendaritza
Dirección de Función Pública

III.ERANSKINA

BERRATXIKIPENA	
EGUNGO ATXIKIPENA	ATXIKIPEN BERRIA
20.1.05.2 PERTSONA FIS. ERRENTAREN ETA ONDAREAREN GAINEKO ZERGEN ATALA	20.1.08 DIRUBILKETA ZERBITZUA
2014.007 Zuzeneko Zergetako Administraria	

IZEN ALDAKETA			
EGUNGO IZENA		IZEN BERRIA	
2014.007	Zuzeneko Zergetako Administraria	2049.001	Ogasuneko Administraria